



Amasa-Villabonan euskara sustatzeko AROA plan estrategikoa

Azken datu ofizialen arabera, herritarren %69,33ak daki euskaraz, eta kaleko eta etxeke erabileran jaitsiera egon den arren, hizkuntza nagusia izaten jarraitzen du. Belaunaldiz belaunaldi transmititu dugu, eta etxean jaso ez duten ehunka lagunek ere ikasi dute.

Euskaraz bizi den herria da gurea, eta hala izaten jarraitzea nahi dugu. Gure bizimoduan aldaketa handiak gertatu dira urteotan, eta hurrengoetan ere gertatuko dira: harreman ereduak, teknologia berriak, biztanle mugimenduak... Aldaketa horiek guztiek zuzenean eragiten diote hizkuntzari, eta, globalizatutako mundu honetan, ezinbesteko izango zaigu euskararen aldeko hautua egitea.

Erakundeok ere badugu zer egina: euskaraz egiteko aukerak zabaltzea eta bultzatzea, eta erraztasunak ematea herritar eta eragileei. Hori da Udalaren konpromisoa. Hain justu, bide horretan sakontzeko eta aurrean dauzkagun erronkei egoki erantzuteko, plangintza bat (AROA) osatzeko asmoa du Udalak, herritarrekin eta eragileekin elkarlanean. Lehen pauso gisa, honako galdetegi hau doakizu, euskarari buruzko galdera batzuekin. Azkar betetzeko galdetegia da, eta guretzat ezinbestekoa da zure iritzia jasotzea.

Euskaraz bizitzen jarraitzeko, denok gara ezinbestekoak. Eskerrik asko zure laguntzagatik.

GALDETEGIA

Eman zure iritzia eta parte hartu.

Udalak datozen urteetan Amasa-Villabonan euskara indartzeko ekintza plana diseinatu behar du. Horretarako, zure iritzia jaso nahi dugu, herrian euskarak egun duen egoera aztertu, ondo egindakoak eta zer hobetuak identifikatu eta aurrera begirako lan ildoak zehazteko.

Erantzun, mesedez, jarraian datozen galderei:

Adierazi mesedez zure adina.

- 18-25
- 25-40
- 40-65
- 65-...

Zein da zure generoa

- Emakumezkoa
- Gizonezkoa
- Ez-bitarra

Zein da zure euskara maila?

- Ondo dakit

- Erdizka dakit
- Ez dakit

Azken urte hauetan, zure ustez, herrian euskararen erabilerak...

- Gora egin du, gehiago erabiltzen da.
- Behera egin du, gutxiago erabiltzen da.
- Mantendu egin da, erabilera egonkortu egin da.

Zertan oinarritzen duzu aurreko galderaren erantzuna? Zer nolako gertaerak/egoerak izan dituzu kontuan erantzuna aukeratzeko?

Zein arlotan ikusten duzu euskararen erabilera indartsuen?(bat baino gehiago hauta daitezke)

- Lagun arteko harremanetan
- Haurren artean
- Gurasoen artean
- Gazteen artean
- Nagusien artean
- Familian
- Eskolan
- Kirolean
- Lan harremanetan
- Kultura eskaintzan
- Aisialdian
- Sare sozialetan
- Harreman instituzionaletan
- Herriko merkataritzan
- Herriko ostalaritzan
- Euskalgintzaren egoera
- Beste bat...

Zein arlotan ikusten duzue euskararen erabilera ahulen? (bat baino gehiago hauta daitezke)

- Lagun arteko harremanetan
- Haurren artean
- Gurasoen artean
- Familian
- Eskolan
- Kirolean

- Lan harremanetan
- Gazteen artean
- Nagusien artean
- Kultura eskaintzan
- Aisialdian
- Sare sozialetan
- Harreman instituzionaletan
- Herriko merkataritzan
- Herriko ostalaritzan
- Euskaingintzaren egoera
- Beste bat...

Zure ustez, zein arlotan eragin beharko litzateke?(aukeratu lehentasunezkoak iruditzen zaizkizun hiru arlo)

- Haur eta nerabeen hizkuntz ohiturak.
- Etorri berrien harrera eta integrazioa.
- Ikus-entzunezkoak eta euskarazko erreferenteak.
- Lan mundua.
- Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuak: udala, anbulatorioa, epaitegia, Lanbide, Ogasuna...
- Euskararekiko sentsibilizazioan.
- Herriko euskaltzaleak elkartzeko saiakera.
- Ostalaritza eta merkataritza

Aurreko galderari lotuta, beste arloren bat gehituko zenuke?

Baduzu bestelako ohar edo proposamenik?